

## Gobernu Batzarraren Akta

2025eko otsailaren 24a

### Bildutakoak:

		Akta Zenbakia <b>00000002</b>
<b>Patxi Ibarguren Etxeberria</b>	<b>Lehendakaria eta Hernaniko Udaletik</b>	Eguna <b>2025/02/24</b>
<b>Pepe Iparraguirre Balda</b>	<b>Andoaingo Udaletik</b>	Iraupena
<b>Iratxe Begiristain Otegi</b>	<b>Usurbilgo Udaletik</b>	-
<b>Jorge Segurado Iriondo</b>	<b>Urnietako Udaletik</b>	
<b>Nuria Fernández Castrillo</b>	<b>Lasarte-Oriako Udaletik</b>	
<b>Xabier Urdangarin Lasa</b>	<b>Astigarragako Udaletik</b>	

### Asistentzia teknikoa:

<b>Julen Mungia Gorrotxategi</b>	<b>Idazkari-Kontuhartzzailea</b>
<b>Helene del Río Laboa</b>	<b>Zuzendaria</b>

### Ez dira bertaratu eta etorri ezina adierazi dute:

<b>Parte hartzen du ere</b>

### Gai Zerrenda

- 1.- 2025/01/27(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bida.
- 2.- Bizi Bizikiren aurkezpena: turismo hausnarketa eta ekintza plana
- 3.- Turismoaren errealityaren hausnarketa partekatua onartzea
- 4.- Lan mentoring programaren berri ematea
- 5.- Beterri-Buruntzako enpresen energia plana onartzea
- 6.- Lokala handitzeko proposamena azaltzea
- 7.- Udaletan ekintza plana aurkeztekao aukera eskaintzea
- 8.- Komunikazio eta harremanetarako teknikariaren funtzioak definitzea
- 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 27/01/2025.
- 2.- Presentación de Bizi Biziki: reflexión de turismo y plan de acción
- 3.- Aprobación de la reflexión compartida sobre la realidad turística en la comarca
- 4.- Comunicar el programa Lan mentoring
- 5.- Aprobación del plan de energía para empresas de Beterri-Buruntza
- 6.- Exposición de la propuesta de ampliación del local
- 7.- Propuesta para presentar el plan de acción en los Ayuntamientos
- 8.- Definir las funciones del/la técnico/a en comunicación y relaciones

- |   |   |
|---|---|
| 9.- Maitelanen inguruko proposamena lantzea   | 9.- Desarrollo de la propuesta sobre Maitelan   |
| 10.- Berri ematea martxan ditugun kontratazioen egoerari buruz: Daiteke + Mailtrain + Aire egokitu eta kalefazioaren mantenua | 10.- Informar sobre el estado de las contrataciones que tenemos en marcha: Daiteke + Mailtrain + Mantenimiento del aire acondicionado y calefacción |
| 11.- Azaltza zein den gure Dirulaguntzen Araudi Orokorraren egoera  | 11.- Exponer cuál es el estado de nuestra Normativa General para Subvenciones   |
| 12.- Galdera, errengu eta proposamenak.   | 12.- Ruegos, preguntas y propuestas.  |

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

---

**1.- Bizi Bizikiren aurkezpena: turismo hausnarketa eta ekintza plana**

Lehendabizi gai zerrendako 2. Puntuarekin hasi gara, izan ere, BIZI BIZIKI enpresako teknikaria etorri da azaltzera egindako eskualdeko turismo hausnarketa eta bertatik ateratako ekintza plana zein izan den. Horretarako, aldez aurretik, partehartzaile guztiei txosten bat helarazi zaie informazio guztiarekin eta BIZI BIZIKIko teknikariak horren PPT bat erabili du azalpena argiagoa eta laburragoa izan dadin.

Aurkezpena amaitutakoan, denok begionez ikusi dute eta Lehendakariak galdera bat mahairatu du: zein den udaletan turismo gaiak jorratzen den foroa.

Azkenean iritsi diren konklusioa da ez dagoela foro bakarra horretarako udaletan. Badaude foro batzuk turismoko gai batzuk jorratzen dituena baina ez udalerriko turismoa bere osotasunean (adibidez, Andoainen badaukate Leitzaran Mahaia baina bertan bakarrik Leitzarani buruz hitz egiten da, ez gainontzeko gauzetaz). Beraz, Mankomunitateko teknikariak Udalek beharra ikusten dutenean besterik ez du parte hartuko Udaletako turismo arloko mahaietan.

**2.- 2025/01/27(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Ondoren, gai ordeneko lehenengo puntuarekin jarraitu da. Horretarako, 2025/01/27 datako batzarraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du eta Gobernu Batzordeak ontzat eman du, hurrengo bozketa honekin:

- Alde: Hernani, Lasarte-Oria, Astigarraga, Usurbil eta Andoain
- Abstentzia: Urnieta (ez baitzen egon aurreko bileran)

**3.- Turismoaren errealtitatearen hausnarketa partekatua onartzea**

Ados agertu dira udal-ordezkariak lehenengo puntuaren hitz egindako eskualdeko turismo hausnarketarekin. Diagonosi eta ekintza plana gure lan tresna izateko prest agertu dira, beraz, aho batez onartu da. BBMko turismo teknikariak hemen aipatutakoarekin jarraituko du lanean.

Lehendakariak gehitu du:

- Udalek ikusten badute beraien turismo arloko fororen batean gure turismo teknikaria egotea lagungarria dela, abisatzeko. Hala ere, koordinatu behar garela esan du, gure turismo teknikaria ezin delako toki batetik bestera ibili.
- Materiala berritu behar da. Ditugun eskuorriak berrikusi behar dira. Adibide moduan, beste eskualde batzuetako eskuorri batzuk ekarri ditu bilerara. Antzeko zerbait sortzea eta material berria sortzea ondo ikusi dute udal-ordezkariek.
- GFAk eskatzen du hiru hilabetero “agenda kulturala”. Gure udalerriean zer eskaiza dagoen kultura arloan biltzen duen agenda bat. Gure turismo teknikariak udal bakoitzari berea eskatuko die. Helburua udal guztien informazioa eskuratzea da (beharrezko gai hau lantzeko).
- Turismo datuen bilketa egitea beharrezko da, ez baitugu horrelako daturik, hala nola: bisitarien profilak, zenbat bisitari izan ditugun...

Lehendakariak aipatu du adibidez Andoainen bi informazio-puntu daudela, horregatik, komenigarria izan daiteke horrelako puntuatik informazio hau eskuratzea gero hortik ondorioak ateratzeko. Horretaz gain, eskualdeko datuak biltzen hasi behar gara, osotasunean.

- Markaren inguruan hausnarketa eta lanketa bat egin behar dugula ados gaudela esan du, baina nola egin lanketa hori: hausnarketa zabal bat? Gobernu Batzordeko hausnarketa? Mahai teknikoko hausnarketa? Kontsultora bat kontratatu horretarako? Esan du lehen pausoa eman dugula, hausnarketa bat egitea, baina lanketa honekin jarraitu behar dugula gogoratu du. Beraz, proposatu du lanketa hau, hasiera batean, mahai tekniko batean egitea, gero Gobernu Batzarrak ekarpenak egin eta, behar izanez gero, kontsulta profesionala egin dezakegu.

Astigarragako ordezkariak esan du argi ikusten dugula Donostialdea marka aldatu behar dela eta ondo ikusi du Lehendakariaren lanketaren metodologiaren proposamena. Hala ere, gehitu du desberdindu behar garela turismo arloan. Ondo dagola, gainontzekoak bezela, esatea turismo jasangarria eta arduratsua nahi dugula, natur turismoa, baina horretaz gain, zerbait gehiago eskaini behar dugula norbait erakarri nahi badugu edo eragina sortu nahi badugu, hala nola turismo inklusiboa izan daitelarria desberdintasuna

eman diezagukeen puntu garrantzitsu bat (ezgaituak dauden pertsonentzat edo adin helduko pertsonentzat pentsatutako turismoa edo aisialdia...).

Lasarte-Oriako ordezkariak gehitu du ondo iruditzen zaiola komentatu duguna baina Lasarte-Orian betiko arazoarekin jarraitzen dutela: ez dagoela turismo erakargarri. (Plazaola izan ezik).

#### **4.- Lan mentoring programaren berri ematea**

Lehendakariak berri eman die partehartzaile guztiei programa honetan parte hartuko dugula eta Innobasquerengatik %100 finantzatuta egongo dela. Programaren helburuak dira enpresetako langileen erreleboa hobetzea, jakintza hemen gelditu dadin.

Astigarragako ordezkariak gehitu du turismoa eta enplegua lortzeko beharra dagoela. Adibidez, sagardotegietan, hoteletan... behar handia dute jendea kontratatzeko eta lan errelebo ona egoteko. Orain nola edo hala jendea lortzen ari dira baina inongo formaziorik gabe dagokion sektorean. Horren inguruan zuzendariak deitu du Elkar Ekinen sagardotegiek uztartzeko helburuarekin zerbitzari eta sukaldaritza ibilbideak antolatu direla, eta jarraituko dela arloan aukerak zabaltzeko helburuarekin.

#### **5.- Beterri-Buruntzako enpresen energia plana onartzea**

Lehendakariak esan du GFAk onartu duela guk egindako planteamendua baina baldintza guztiak ez ditugula betetzen, eta horregatik, moldaketa batzuk egin beharko ditugula (nahiz eta bien bitartean aurrera egingo dugun).

Zuzendariak gehitu du energia plana beharrezkoa dela hitzarmena sinatzeko GFarekin eta GFAk energian ekimenak modu orokorrean ulertzen dituela, herritarra ere barne hartuz. Ondo ikusten dute enpresekin lan egitea, baina beraien ideia da etorkizunean pertsonekin ere lan egitea, ekimen desberdinak gureganatuz. Oraintxe bertan, pelota beraien teilatuan dagoela esan du, erabakitzen dutena zer den jakin arte, baina printzipioz onartuko digutela eta agian etorkizunera begira bete beharreko baldintzaren bat jarriko dutela.

Udal-ordezkari guztiak ados azaldu dira eta Lehendakariak puntu hau bozkara jarri ostean, denek aho-batez onartu dute.

#### **6.- Lokala handitzeko proposamena azaltzea**

Hemen Lehendakariak gogorarazi du gure lokalak erosteko intentzioak aurrera egiten duela. Ondoren, idazkari-kontuhartzaileak hartu du hitza eta, nahiz eta jakin, berriro azaldu die Akarregi 10eko bulegoetan alokairu moduan gaudela (203-204 bulegoetan) eta, kontratuaren arabera, datorren urtea baino lehen erosteko aukera daukagula. Bestalde, ikusirkik bulego hauek txikiak geratzen ari zaizkigula, ondoko bi bulegoak (201 eta 202) erosteko ideia ere planteatzen da, gero, obra baten bidez, 4 lokalak komunikatzeko intentzioarekin.

Horretaz gain, aipatu du, operazio hauek egitekotan, prozedimendu aldetik zalentzak dituela, lizitazio bidez edo zuzeneko erosketa bidez egiteko, eta hori argituko duela datorren bilerarako. Bestalde, Excel batean egindako zenbaki posible batzuk erakutsi dizkie ordezkariei, esanez printzipioz, diruzaintzako gerakinarekin finantzatu daitekeen operazio bat izan daitekeela (nahiz eta momenturen batean tesoreria arazoak sortu), nahiz eta jakinarazi dien tasadora ofizial batek tasatuko dituela 4 lokalak beraien prezioa hobeto jakiteko, beraz, pantailan ikusten ari diren zenbakiak aldatu daitezkeela jakinarazi die.

Hurrengo bileran gai honi berriro helduko diela esan die.

#### **7.- Udaletan ekintza plana aurkezteko aukera eskaintza**

Lehendakariak esan du BBMn ekintza plana izanda, idea ona iruditzen zaiola horren aurkezpena egitea udal bakoitzean, azken finean, Udalak BBMren parte dira eta jakin behar dute mankomunitatean egiten eta jorratzen diren gaiei buruz. Eskaeraren bat jaso da gainera. Idea da departamentu desberdinatan lan egiten duten ahalik eta langile eta ordezkari politiko gehienak gonbidatzea ekitaldi hauetarako.

Bestalde, jakinarazi du bildatzen dugun buletin informatzaile horiek eragin positiboa sortzen dutela, besteak beste, bere udaleko oposiziokoek horren bidalketa eskertu baitzion.

#### **8.- Komunikazio eta harremanetarako teknikariaren funtzioak definitza**

Lehendakariak gogoratu die Komunikazio eta Harremanetarako teknikariaren funtzioen ekarpenak oraindik jasotzeke ditugula udalen aldetik.

Bestalde, jakinarazi die Enpresa eta Sustapeneko azken teknikaria lehenbailehen kontratatzeko intentzioa dagoela, maiatzaren 1a arte itxaron beharrean, ikusita lan-karga handia dela eta Enpresa eta Iraunkortasun teknikariak bajan jarraitzen duela. Beraz, idea

berria dela Empresa eta Sustapeneko Teknikaria lehenago ekartzea eta Komunikazio eta harremanetarako teknikaria zertxobait atzeratzea.

#### **9.- Maitelanen inguruko proposamena lantza**

Gai hau jorratzeko udal-ordezkari bakoitzari txosten bat helarazi zitzaion sakon azaltzen zein den gaur egun BBMtik Maitelani laguntzeko proposamena. Lehendakariak gehitu zuen ideia dela aldatzea ikuspuntuak Maitelanek egin dituen lanaren gainean, eta zaintzaren ikuspuntutik begiratu beharrean, enplegu sozialetik begiratzea: zaintzaren enplegutik alegia.

Udal-teknikarien ekarpenak ere jaso direla proposamen hau egiteko gogoratu du Lehendakariak, azarotik lanketa martxan egon dela, eta aukera ona ikusten du sektore feminizatu honen gainean Administrazioak jasotzen ez dituen datuen erregistro bat izatea eta diagnosi hori egin ahal izatea. Horretaz gain, arlo zaila dela eta saretze eta lagunza bat eskaintza proposatzen dela esan du. Bestalde, Maitelan momentu larri batetik pasatzen ari dela ere esan du. Aurrekonturako zaintzaren diagnosi eta senior taleantuaren partida erabili daitezkeela proposatu da gainera.

Urnietako ordezkaria Maitelani laguntzeko prest agertu da eta baita ere egindako proposamenaren alde, baina bere kezka da hau ez ote den zerbitzu kontratu bat. Idazkari-kontuhartzaila erantzun dio kontratu bat izateko kontratuak legeak ezarritako baldintzak bete behar dituela. Azken finean, aztertu behar dela ondo zein den proposamena eta zein den helburua eta horren arabera kontratua, lankidetza-hitzarmena eta dirulaguntza izan daitekeela. Orain, proposamena izanda, aztertuko dela zer lortu nahi den eta hurrengo bilerara ekarriko dela nola jokatu honen aurrean.

Bukatzeko, Lehendakariak gogorarazi die Beterri Errutz eta Maitelan eskualdetik bultzatu eta sustatu ziren proiektuak direla. Orain Maitelanek gure lagunza behar duela eta gainera beraiek lagundi diezaguketela gu eta Udalak iristen ez garen tokietara iristeko, hala nola zaintzaren mundura eta horren atzean dagoen eta guztiz ezagutzen ez dugun egoerara. Horregatik, gai hau enplegu sozialetik lantza ondo ikusten da.

#### **10.-Berri ematea martxan ditugun kontratazioen egoerari buruz: Daiteke + Mailtrain + Aire egokitza eta kalefazioaren mantenua**

Idazkari-kontuhartzaila berri eman die azken aldian landu ditugun kontratazioen inguruau:

- Hazilan+ programa egiteko zerbitzua emateko DAITEKE empresa izan da esleitua eta beraiekin kontratua berehala sinatuko dugu.

- MAILTRAIN software mantenua eta ostatatzearen inguruko zerbitzuaren lizitazioa argitaratu dugu. MAILTRAIN software librea da mailing masiboak, iragarki kanpainak... egiteko erabiltzen dena. Honen sobre irekiera bakarraren data 25/02/2025 da eta lizitazio prezioa 850€+ BEZ. Hasierako iraupena bi urtetakoa da, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin. Eta erabilitako prozedura ireki supersimplifikatua da.
- Aire egokitu eta kalefazioaren mantenua emateko zerbitzuaren lizitazioan parte hartzeko epea 2025/03/05da eta lizitazio prezioa 1.225€ + BEZ da (balio estimatua 4.900€). Hasierako iraupena urtebetekoa da, beste 3 urtez luzatzeko aukerarekin. Hau ere, prozedura ireki supersimplifikatuaren bidez lizitatu da.

#### **11.-Azaltza zein den gure Dirulaguntzen Araudi Orokorraren egoera**

Idazkari-kontuhartzaileak gogorarazi die martxan dagoela BBMko Dirulaguntzak emateko Araudi Orokorraren onarpena. Orain arte aurretiazko kontsulta egin da eta laster bukatuko da aurretiazko entzunaldia (martxoaren 4n hain zuzen ere). Horren ondoren, Gobernu Batzarrera ekarriko da onartzeko eta GAOn argitaratuko da jendaurreko informazio gisa. Behin hori guztia eginda, behin betiko onartuko da araudia.

Andoaingo ordezkariak galdetu du aurretiazko entzunaldia non ikusi daitekeen eta idazkari-kontuhartzaileak erantzun dio gure webgunean dagoela argitaratua.

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaidea presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren.

#### **12.-Galdera, erregu eta proposamenak.**

- Zuzendariak argitu nahi du ea azkenean joango den GFAk deitutako taxien bilerara, entzule moduan, eta baiezkoa adierazi da. Gero partekatuko da informazioa. Argitu du Donostialdea eskualdea bakarrik dagoela deitura.
- Lehendakariak esan du bere udaleko gizarte-zerbitzuko arduradunak esan ziola 6 udalerrietako gai honetako arduradunak noizean behin elkartzen direla eta horregatik eskatu zion Lehendakariari BBMra etortzea aurkezpen bat egitera. Ondo ikusi dute.

Hurrengo Gobernu Batzarraren bilera martxoaren 24n, eguerdiko 12:30tan, jarri da.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 14:39 minuti zirenean. Idazkari-kontuhartzaileak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorri Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

**O.E., / Vº Bº  
Lehendakaria**

**Idazkari-kontuhartzailea**

**1.- Presentación de Bizi Biziki: reflexión de turismo y plan de acción.**

Primero, comenzamos con el punto número 2 del orden del día, ya que el técnico de la empresa BIZI BIZIKI ha venido a explicar la reflexión turística de la comarca y el plan de acción extraído de la misma. Para ello, previamente se ha hecho llegar a todos los participantes un informe con toda la información y el técnico de BIZI BIZIKI ha utilizado un PPT de la misma para que la explicación sea más clara y concisa.

Al finalizar la presentación, todos han dado el visto bueno y la Presidenta ha planteado una pregunta: cuál es el foro en el que se tratan los temas turísticos en los ayuntamientos?

La conclusión a la que finalmente han llegado es que no hay un único foro para ello en los ayuntamientos. Hay foros que tratan algunos temas turísticos pero no el turismo del municipio en su conjunto (por ejemplo, en Andoain cuentan con la Mesa Leitzaran pero sólo se habla de Leitzaran en ella, no del resto de cosas). Por tanto, el técnico de la Mancomunidad sólo participará en las mesas del área de turismo de los Ayuntamientos cuando los Ayuntamientos lo consideren necesario.

**2.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 27/01/2025.**

A continuación se continúa con el primer punto del orden del día. A tal efecto, una vez leído el acta correspondiente a la sesión de fecha 27/01/2025, la Presidenta somete a votación la aprobación de la misma, que es aprobada por la Junta de Gobierno con la siguiente votación:

- A favor: Hernani, Lasarte-Oria, Astigarraga, Usurbil y Andoain
- Abstención: Urnieta (no estuvo presente en la reunión anterior)

**3.- Aprobación de la reflexión compartida sobre la realidad turística en la comarca.**

Los representantes municipales se muestran de acuerdo con la reflexión turística comarcal comentada en el primer punto. Se han mostrado dispuestos a que el diagnóstico y el plan de acción deben ser nuestra herramienta de trabajo, así que se ha aprobado por unanimidad. El técnico de turismo de la BBM seguirá trabajando con lo aquí mencionado.

La Presidenta añade:

- Si los ayuntamientos ven que la presencia de nuestro técnico de turismo en algún foro de su área de turismo puede ayudar, que nos avisen. No obstante, dice que hay que coordinarse porque nuestro técnico de turismo no puede andar de un sitio a otro.
- Hay que renovar el material. Hay que revisar los folletos que tenemos. A modo de ejemplo, ha traído a la reunión unos folletos de otras comarcas. La realización de algo parecido y la creación de nuevo material ha sido bien vista por los representantes municipales.
- La DFG exige cada tres meses una "agenda cultural". Una agenda que recoge la oferta cultural de nuestros municipios. Nuestro técnico de turismo pedirá a cada ayuntamiento la suya. El objetivo es obtener información de todos los ayuntamientos (necesaria para tratar este tema).
- La recogida de datos turísticos es necesaria, ya que no tenemos datos como: perfiles de visitantes, número de visitantes...

La Presidenta comenta que por ejemplo en Andoain hay dos puntos de información, por eso puede ser conveniente que de estos puntos se obtenga esta información para luego sacar conclusiones. Además, hay que empezar a recoger los datos de la comarca en su conjunto.

- Dice que estamos de acuerdo en que tenemos que hacer una reflexión y una elaboración sobre la marca, pero ¿cómo hacer esa elaboración: una reflexión amplia? ¿Reflexión en la Junta de Gobierno? ¿Reflexión en la mesa técnica? ¿Contratar a una consultora para eso? Dice que hemos dado el primer paso, hacer una reflexión, pero recuerda que tenemos que seguir con esta elaboración. Por tanto, propone que este trabajo se haga, en principio, en una mesa técnica, luego podemos hacer aportaciones por parte de la Junta de Gobierno y, si hace falta, hacer una consulta profesional.

El representante de Astigarraga dice que «vemos claro que hay que cambiar la marca Donostialdea y ha visto bien la propuesta de metodología de elaboración de la Presidenta. No obstante, añade que «tenemos que diferenciarnos en materia de turismo. Que está bien, como el resto, decir que queremos un turismo sostenible y responsable, un turismo de naturaleza, pero que además tenemos que ofrecer algo más si queremos atraer a

alguien o generar impacto, como el turismo inclusivo puede ser un punto importante que nos dé desigualdad (turismo pensado para personas discapacitadas o de edades avanzadas o ocio...).

La representante de Lasarte-Oria añade que le parece bien lo que hemos comentado pero que en Lasarte-Oria siguen con el problema de siempre: que no hay un turismo atractivo. (Excepto Plazaola).

#### **4.- Comunicar el programa Lan mentoring**

La Presidenta informa a todos los participantes que vamos a participar en este programa y que estará financiado al 100% por Innobasque. Los objetivos del programa son mejorar el relevo de los trabajadores de las empresas para que el conocimiento se quede aquí.

El representante de Astigarraga añade que hay una necesidad de conseguir turismo y empleo. Por ejemplo, en las sidrerías, en los hoteles... tienen mucha necesidad de contratar gente y de que haya un buen relevo laboral. Ahora se está consiguiendo gente de algún modo, pero sin ninguna formación en el sector correspondiente. En torno a ello, la Directora ha convocado que en Elkar Ekin se han organizado rutas de camarero y cocina con el objetivo de compaginarlas con las sidrerías, y que se seguirá con el objetivo de ampliar las posibilidades en el área.

#### **5.- Aprobación del plan de energía para empresas de Beterri-Buruntza**

La Presidenta dice que la DFG ha aceptado nuestro planteamiento pero que no cumplimos todos los requisitos, por lo que tendremos que hacer algunas adaptaciones (aunque mientras tanto vamos a seguir adelante).

La Directora añade que el plan de energía es necesario para firmar el convenio con la DFG y que la DFG entiende las iniciativas en energía de forma global, incluyendo a la ciudadanía. Ven bien trabajar con las empresas, pero su idea es trabajar con las personas en el futuro, asumiendo diferentes iniciativas. Dice que ahora mismo la pelota está en su tejado hasta saber qué es lo que deciden, pero que en principio nos la van a aceptar y que quizás pongan alguna condición a cumplir de cara al futuro.

Todos los representantes municipales se muestran de acuerdo y tras la votación de este punto por parte de la Presidenta, todos lo aprueban unánimemente.

**6.- Exposición de la propuesta de ampliación del local**

Aquí la Presidenta recuerda que la intención de comprar nuestros locales avanza. A continuación toma la palabra el Secretario-Interventor que, a pesar de saberlo, les vuelve a explicar que en las oficinas de Akarregi 10 estamos en régimen de alquiler (oficinas 203-204) y que, según el contrato, tenemos opción de compra antes del año que viene. Por otra parte, viendo que estas oficinas se nos están quedando pequeñas, también se plantea la idea de comprar las dos oficinas adyacentes (201 y 202), con la intención de comunicar posteriormente, a través de una obra, los 4 locales.

Además, señala que, en el caso de realizar estas operaciones, tiene dudas con el procedimiento para realizarlas mediante licitación o compra directa, lo que aclarará para la próxima reunión. Por otro lado, ha mostrado a los representantes unos posibles números realizados en un Excel diciendo que, en principio, podría tratarse de una operación financiable con remanente de tesorería (aunque en algún momento surgieran problemas de tesorería), aunque les ha informado de que una tasadora oficial tasará los 4 locales para conocer mejor su precio, por lo que les informa de que los números que se están viendo en pantalla pueden variar.

Les dice que en la próxima reunión retomará este tema.

**7.- Propuesta para presentar el plan de acción en los Ayuntamientos.**

La Presidenta dice que teniendo un plan de acción en la BBM, le parece una buena idea hacer una presentación de ello en cada Ayuntamiento, al fin y al cabo los Ayuntamientos forman parte de la BBM y tienen que saber sobre los temas que se hacen y se tratan en la Mancomunidad. Además se ha recibido alguna solicitud. La idea es invitar para estos actos al mayor número posible de trabajadores y representantes políticos que trabajan en los distintos departamentos.

Por otro lado, informa que «estos boletines informadores que recopilamos generan un efecto positivo, entre otros, ya que los de la oposición de su ayuntamiento le agradeció el envío del mismo.

**8.- Definir las funciones del/la técnico/a en comunicación y relaciones.**

La Presidenta les recuerda que las aportaciones de las funciones del/la Técnico/a de Comunicación y Relaciones están pendientes de recibir por parte de los Ayuntamientos.

Por otra parte, les informa que hay intención de contratar cuanto antes al último técnico/a de Empresa y Promoción, en lugar de esperar hasta el 1 de mayo, dada la enorme carga de trabajo y que la técnica de Empresa y Sostenibilidad sigue de baja. Por lo tanto, la nueva idea es traer antes al/ a la Técnico/a de Empresa y Promoción y retrasar un poco al/ a la Técnico/a de Comunicación y Relaciones.

**9.- Desarrollo de la propuesta sobre Maitelan**

Para tratar este tema se remitió a cada representante municipal un informe explicando en profundidad cuál es en la actualidad la propuesta de apoyo a Maitelan desde la BBM. La Presidenta añadió que «la idea es cambiar el punto de vista sobre el trabajo que ha llevado a cabo Maitelan, y en lugar de mirar desde el punto de vista del cuidado, mirar desde el empleo social: desde el empleo del cuidado».

La Presidenta recuerda que también se han recibido aportaciones de técnicos municipales para realizar esta propuesta, que ha estado en marcha desde noviembre, y ve una buena oportunidad tener un registro de los datos que no recoge la Administración sobre este sector feminizado y poder hacer ese diagnóstico. Además, dice que es un área difícil y que se propone ofrecer una red y un apoyo. Por otro lado, también ha dicho que Maitelan está pasando por un momento grave. Se propone, además, la utilización del diagnóstico de cuidados y de la partida de talento senior para el presupuesto.

El representante de Urnieta se ha mostrado dispuesto a ayudar a Maitelan y también a favor de la propuesta realizada, pero su preocupación es si esto no es un contrato de servicios. El Secretario-Interventor responde que para tener un contrato tiene que cumplir los requisitos establecidos por la ley de contratos. En definitiva, que hay que analizar cuál es la propuesta y cuál es el objeto y en función de la cual puede ser un contrato, un convenio de colaboración y una subvención. Ahora que se trata de una propuesta, se estudiará qué se quiere conseguir y se traerá a la próxima reunión cómo actuar ante esto.

Por último, la Presidenta les ha recordado que Beterri Errutz y Maitelan son proyectos impulsados y promovidos desde la comarca. Que ahora Maitelan necesita nuestra ayuda y además ellos nos pueden ayudar para llegar a donde nosotros y los Ayuntamientos no

Ilegamos, como es el mundo del cuidado y la situación que hay detrás de él y que no conocemos del todo. Por ello, trabajar este tema desde el empleo social está bien visto.

**10.- Informar sobre el estado de las contrataciones que tenemos en marcha: Daiteke + Mailtrain + Mantenimiento del aire acondicionado y calefacción**

El Secretario-Interventor les informa de las contrataciones en las que hemos trabajado en los últimos tiempos:

- Para la prestación del servicio de Hazilan+ ha sido adjudicada la empresa DAITEKE con la que firmaremos el contrato de forma inmediata.
- Se ha publicado la licitación del servicio de mantenimiento y alojamiento de software MAILTRAIN. MAILTRAIN es un software libre utilizado para realizar mailings masivos, campañas de anuncios... La fecha de apertura única del sobre es 25/02/2025 y el precio de licitación es de 850 €+ IVA. La duración inicial es de dos años prorrogables por otros dos. Y el procedimiento utilizado es un abierto supersimplificado.
- El plazo para participar en la licitación del servicio de acondicionamiento de aire y mantenimiento de calefacción es de 05/03/2025 y el precio de licitación es de 1.225 €+ IVA (valor estimado 4.900 €). La duración inicial es de un año prorrogable por otros 3. También se ha licitado por procedimiento abierto supersimplificado.

**11.- Exponer cuál es el estado de nuestra Normativa General para Subvenciones**

El Secretario-Interventor les recuerda que ya está en marcha la aprobación del Reglamento General de Subvenciones de la BBM. Hasta ahora se ha realizado una consulta previa y en breve finalizará la audiencia previa (concretamente el 4 de marzo). Posteriormente se traerá a la Junta de Gobierno para su aprobación y se publicará en el BOG como información pública. Una vez realizado todo ello, se procederá a la aprobación definitiva de la normativa.

El representante de Andoain pregunta dónde se puede ver la audiencia previa y el secretario-interventor le responde que está publicada en nuestra web.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar a la sección de Preguntas, ruegos y propuestas, y tras considerar urgente el debate del asunto, por unanimidad y, por tanto, con el quórum de la mayoría absoluta de los juntberos, se adoptaron los siguientes acuerdos.

**12.- Ruegos, preguntas y propuestas.**

- La Directora quiere aclarar si finalmente asistirá a la reunión de taxis convocada por la DFG en calidad de oyente, manifestándose afirmativo. Luego se compartirá la información. Aclara que sólo está convocada la comarca de Donostialdea.
- La Presidenta dice que el responsable del servicio social de su ayuntamiento le dijo que los responsables de este tema de los 6 municipios se reúnen de vez en cuando y por eso pidió a la Presidenta que viniera a la BBM a hacer una presentación. Lo han visto bien.

La reunión de la próxima Junta de Gobierno se celebrará el día 24 de marzo a las 12:30 horas.

Y a falta de más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión ordinaria a las 14:39 minutos. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen de las Entidades Locales, una vez redactado por el Secretario-Interventor el presente documento correspondiente a la sesión, leído y visto bueno por la Presidenta, ambos lo suscriben. Y a fe de todo esto, yo, que soy, doy.

**O.E./Vº Bº**

**La Presidenta**

**El Secretario-Interventor**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2025BG010002-Akta Ofiziala/Acta Oficial (BETERRI BURUNTZA MANKOMUNITATEA)